

**ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO BABES  
AGINDUAREN EZARPENERAKO SEGIMENDU BATZORDEA**

**ETXEKO  
INDARKERIAREN  
BIKTIMENTZAKO  
BABES AGINDUAREN  
EZARPENERAKO  
PROTOKOLOA**



BOTERE JUDIZIALEKO KONTSEILU OROKORRA



ESTATUKO FISKALTZA OROKORRA



ABOKATUTZAKO  
KONTSEILU OROKORRA



PROKURADOREEN  
KONTSEILU OROKORRA



GOBIERNO DE CANARIAS



JUNTA DE ANDALUCÍA



COMUNIDAD DE MADRID



GOBIERNO DE NAVARRA

<b>HITZAURREA.....</b>	<b>3</b>
<b>1.- HASIERAKO FASEA: BABES AGINDUAREN ESKAERA.....</b>	<b>8</b>
1.1.- BABES AGINDUAREN ESKAERA.....	8
1.2.- BIKTIMAK ERRAZTASUNEZ ESKURA DEZAKEEN INFORMAZIOA.....	9
1.3.- ESKARIA AURKEZTEKO LEKUA.....	10
1.4.- GUARDIA EPAITEGIAREN ESKU-HARTZEA .....	10
1.5.- POLIZIA JUDIZIALAREN ESKU-HARTZEA.....	11
1.6.- ATESTATUA GUARDIA EPAITEGIRA IGORTZEA.....	11
<b>2.- BABES AGINDUA HARTZEKO FASEA.....</b>	<b>11</b>
2.1.- PROZEDURA PENALA IREKITZEA.....	11
2.2.- HAINBAT BABES AGINDU ALDI BEREAN APLIKATZEKO EZINTASUNA.....	12
<b>3.- BABES AGINDUAREN JAKINARAZPENA ETA EXEKUZIOA.....</b>	<b>13</b>
3.1.- NEURRI PENALAK ETA BABES NEURRIAK.....	13
3.2.- NEURRI ZIBILAK.....	14
3.3.- JURISDIKZIO PENAL ETA ZIBILEN ARTEKO KOORDINAZIOA.....	14
3.4.- LAGUNTZA ETA GIZARTE-BABESERAKO NEURRIAK.....	15
3.4- BIKTIMAREN ARRETARAKO BULEGOAK.....	17
3.5- ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO ERREGISTRO ZENTRALA.....	17
3.6.- ZIGOR-ADMINISTRAZIOA.....	18
<b>4.- LAGUNTZA JURIDIKOA ETA AUZIBIDEKO ORDEZKARITZA.....</b>	<b>18</b>
<b>5.- BABES AGINDUAREN ZABALKUNDEA.....</b>	<b>18</b>
<b>6.- TREBAKUNTZA.....</b>	<b>19</b>

## HITZAURREA

- I -

Talde parlamentario guztien ekimenez tramitatutako eta Ganbera Legegile biek aho batez onarturiko gure Prozedura Kriminaleko Legeko Babes Aginduaren arautze berriak, etxeko indarkeriaren kontrako borrokan aurrerapauso garrantzitsu bat suposatzen du: eskaera bakar batetik abiatu, ordenamendu juridikoak biktimaren babeserako aurreikusten dituen tresna ezberdinak bateratzen dituelako (penalak, zibilak eta babes eta gizarte-laguntzakoak).

Erreforma garrantzitsu hau Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak osaturiko Azpibatzorde parlamentarioan, bere 2002ko urriaren 22ko saioan, hasi zen zehazten, "genero indarkeriaren aurrean erantzun integrala ematen duten neurri legegileak adierazteko" helburuarekin. Bere eginbeharren baitan, iragan otsailaren 4an Azpibatzordeak batzarra izan zuen Justizia Ministerioarekin eta Lan eta Gizarte-arazoetarako Ministerioarekin, eta batzar horretan Justizia Ministerioak tresna judizial berri baten diseinua, Etxeko Indarkeriaren Biktimentzako Babes Agindua, eskaini zien Talde Parlamentario guztiei.

Hasierako ideia honetatik abiatuz, Azpibatzordeak, Talde Parlamentario guztien erabateko adostasunarekin, BJKO-eko (Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko), Estatuko Fiskaltza Orokorreko eta Justizia Ministerioko adituek osatutako batzorde tekniko batean garatu zuen proposamen hau. Era honetan, Azpibatzordearen ondorioak eransten diren neurri legegileen katalogoan gehitu zen Babes Agindua. Aipaturiko Agindua bere arautzearen arrazoi diren sei funtsezko oinarrien gainean eratu zen:

- a) Biktimaren eta bere familiaren babes printzipioa. Babes Agindu honen oinarritzko funtsa biktimaren eta bere familiaren osotasuna babestea da erasotzailearen aurrean. Beste modu batera esanda, Babes Aginduaren xede nagusia biktimak eta familiak segurtasun sentazioa

berreskuratzea da erasotzailearen balizko mehatxu eta ondorengo errepresalien aurrean. Horregatik, etxeko indarkeria kasuetan Babes Agindua eskura izatea biktimaren eskubide bihurtze da.

- b) Aplikazio orokorraren printzipioa. Epaileak biktimaren babesa bermatzeko beharrezkotzat jotzen duen kasu guztietan Babes Agindua erabiltzeko aukera izan behar du, bai balizko etxeko indarkeria kasuak delitua suposatzen badu eta bai falta suposatzen badu ere.
- c) Premiazkotasun printzipioa. Babes Agindua ahalik eta azkartasun handienarekin –dagozkien auzibideko bermeak eta proportzionaltasun printzipioa kaltetu gabe– hartu eta exekutatu behar da. Beraz, gertakarien baldintzen inguruko baieztapen judiziala egitea eta dagozkien biktimarentzako babes neurriak hartzea ahalbidetzen duen prozedura azkarra artikulatu behar da.
- d) Eskuragarritasun printzipioa. Babes Aginduaren arautze eraginkorra bermatzeko, etxeko indarkeria delituen biktima diren guztientzat eskuragarria izateko moduko prozedura erraza artikulatzea derrigorrezkoa da. Beraz, aginduaren eskaera erraztasun irizpideetara moldatu beharko da, biktimak, bere ordezkariak, eta abar, agindua eskatzeko Epailearengana jotzeko erraztasuna izan dezaten, kostu gehigarririk gabe.
- e) Osotasun printzipioa. Epaileak eskainiriko Babes Aginduak, biktimaren babeserako estatutu integrala jasotzea suposatu behar du, aldi bakarrean eta automatikoki, eta agindu honek zaintza jarduerak (jatorri penaleko, zibileko eta gizarte-babeseko neurriak bere baitan hartzen dituztenak) aktibatuko ditu.
- f) Auzibide erabilgarritasun printzipioa. Babes Aginduak, gainera, Polizia Judizialaren jarduera eta ondorengo instrukzio kriminaleko prozesua erraztu behar du, bereziki frogen bilketa, tratamendu eta kontserbazioarekin loturiko esparruetan.

- II -

Indarkeriaren kontrako emakumeen babesaren inguruko Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen (2002)5 Gomendioak (2002ko apirilaren 30ean onartuak), Estatuei gomendatzen die politika nazionalak ondoko elementuetan oinarrituta sartu, garatu edota hobetzeko: Biktimen segurtasun mailarik handiena eta babesa; biktimizazio sekundarioa eragitea saihesten duten babes eta laguntza estruktura onenak martxan jarriz indarkeriaren biktima diren emakumeei eskaintzeko laguntza ahalmena indartzea; Eskubide Zibil eta Penala moldatzea, prozedurak barne; eta profesionalen trebakuntza espezializatua. Ikus daitekeenez, Babes Agindua arautzen duen Legean bildutako printzipioek, Europako Kontseiluko gomendioei erantzuteaz gain, biktimari babeserako marko integrala eskaintzen dio.

Babes Aginduaren ezaugarri diren azkartasun, osotasun eta soiltasunak, era batera edo bestera etxeko indarkeriaren biktimak babesteko lan egiten dugunon arteko koordinazioa eskatzen dute, modu horretan, babes eskaera hutsa egitearekin Ordenamendu Juridikoan aurreikusitako mekanismo guztiak martxan jartzea lortuz.

Erakunde arteko koordinazio hau Agindu hau arautzen duen Legearen 2. Xedapen Gehigarrian aurreikusitako Babes Aginduaren Ezarpenerako Segimendu Batzordearen eraketan oinarritzen da.

2003ko uztailaren 22an eraturako Babes Aginduaren Ezarpenerako Segimendu Batzordea ondoko kideek osatzen dute: Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko, Estatuko Fiskaltza Orokorreko, Justizia Ministerioko, Barne-arazoetako Ministerioko, Lan eta Gizarte-arazoetako Ministerioko, Komunitate Autonomoetako, Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioko, Espainiako Abokatutzako Kontseilu Orokorreko eta Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Kontseilu Orokorreko ordezkariak.

Segimendu Batzordean Protokolo hau garatzen ari garenon helburu komuna da, oinarri-oinarrian, euren artean lotuta egotean araudi berriari diseinatutako babes integralerako mekanismoen funtzionamendu egokia errazten duten elementuak martxan jartzea, eskumena duen erakunde edo Administrazio bakoitzak esparru honetan burutu ditzakeen garapenak kaltetu barik.

Helburu hau betetzeak, Etxeko Indarkeriaren Behatokiaren baitan iraunkortasun izaerarekin eta etxeko eta genero indarkeriari modu integralean aurre egiteko xedearekin sortutako konpromisoa suposatzen du

Etxeko indarkeriaren biktimen Babes Agindua arautzen duen Lege arautzailearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezartzen den bezala, Batzorde honi dagokio Babes Aginduaren ezarpenerako irismen orokorreko Protokoloak garatzea, eta baita Epaileek, Auzitegiek eta eskumena duten Administrazio publikoek harturiko babes eta segurtasun neurrien eraginkortasuna ziurtatzeko koordinazio tresna egokiak garatzea ere.

- III -

Babes Aginduaren Ezarpenerako Segimendu Batzordeak, bere lehenengo batzarrean, erakunde eta Administrazio publikoen ondorengo jarduerentzat marko orokor gisa erabiltzeko balioko duen Protokolo bat garatzea hitzartu zuen, garapenerako beste tresna batzuek zehaztuko dutena.

Protokolo honetan, Segimendu Batzordeko kideen jarduera bateratuaren konpromisoa eskatzen duten alderdi garrantzitsuenak sistematizatzeko asmoz, erabilgarria da Babes Aginduaren tramitazioan hiru une bereiztea:

- a) Babes Aginduaren eskaera fasean, ezinbestekoa da biktimari informazioa eskura jartzea eta Babes Aginduaren eskaera orriak ere ematea, eta baita komunikazio kanal bizkorrak erabakitzea ere.
- b) Agindua hartzeko fasean, prozesuan parte hartzen duten guztien arteko koordinazioa bermatu behar da.

- c) Jakinarazpen eta exekuzio fasean, gizarte-laguntza eta gizarte-babes esparruetan eskumena duten administrazioek protagonismo berezia hartzen dute, bai esparru autonomikoan eta bai udal esparruan.

**- IV -**

Arestian azalduko guztia dela eta, Babes Aginduaren Ezarpenerako Segimendu Batzordeak, etxeko indarkeriaren biktimentzako babes agindua ezartzea helburuarekin, kide bakoitzaren harreman eta betebeharrak zehazten duten ondoko printzipioak ezartzen ditu.

## **1.- HASIERAKO FASEA: BABES AGINDUAREN ESKAERA**

### **1.1.- BABES AGINDUAREN ESKAERA**

Biktimak berak edo beronekin senidetasun harremana edo indarrean dagoen Kode Penaleko 153. artikulua zehazten duenaren arabera harreman afektiboa duten pertsonak eskatu ahal izango dute Babes Agindua. Bestalde, PKLE 544. artikuluko 2. ataleko 2. paragrafoak ezartzen duenaren arabera, eta Lege beraren 262. artikuluan aurreikusitako salaketarako betebeharrak orokorra kaltetu barik, Babes Agindua arrazoitzen duten gertakarien baten berri duten laguntza erakunde edo organismoek, publiko zein pribatuek, berehala eman beharko die gertakari berri guardiako Epaileari edo Ministerio Fiskalari, babes agindua hartzeko prozedura ireki edo bultzatzeko helburuarekin.

Ondoko lekuetan aurkez daitezke: edozein Polizia Egoitzatan, Guardia Zibilen postutan edo Polizia Autonomiko zein Udaltzaingoaren egoitzatan; Epaitegian edota Fiskaltzan; Biktimarentzako Arreta Bulegoetan; Administrazio Publikoen menpeko gizarte zerbitzu edo laguntza erakundeetan; edota Abokatu Elkargoen Orientabide Juridikoen Zerbitzuetan. Ofiziozko Epaileak erabakia ere izan daitezke, edota Ministerio Fiskalak bultzatua.

Ondoko ezaugarriak dituen eredu normalizatu baten bidez egingo da Babes Aginduaren eskaera:

- ?? Soiltasuna, hau da, edozein pertsonak bete ahal izateko modukoa.
- ?? Eskuragarritasun errazekoa, erakunde eta organismo ugaritan eskuratu ahal izateko moduan.
- ?? Osotasuna, eskaera bakar batek balizko neurri penal, zibil eta gizarte-laguntza eta gizarte-babeseko neurriak hartzeko bidea irekiko baitu.

Edukiari dagokionez, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikulua 1 atalean ezarritakoaren arabera eskaera arrazoitzen duten eta



arau-hauste penala (delitua edo falta) suposatzen duten gertakarien deskribapen bat txertatu beharko da kasu guztietan.

Arestian aipaturikoa burutu ahal izateko, Babes Aginduaren Ezarpenerako Segimendu Batzordeak arestian aipatutako ezaugarriak biltzen dituen eskaera-orri normalizatu eta bakar bat onartu du. Aipaturiko eskaera-orri hori berehala jarriko da Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko webgunean, eta baita Batzordearen kide diren gainontzeko erakunde, administrazio eta organismo bakoitzaren web orri edo webguneetan. Honetaz gain, organizazio eta erakunde bakoitzak egoki deritzon banaketa bide osagarriak erabili ahal izango ditu.

## **1.2.- BIKTIMAK ERRAZTASUNEZ ESKURA DEZAKEEN INFORMAZIOA**

Botere publikoen jokabideek izan behar duten printzipio orokorra biktimententzat bai Babes Aginduen eskaera eta bai beroni buruzko informazioa modu errazean eskuragarri jartzea izan behar da.

Horrela bada, biktimentaren esku jarriko dira bai Babes Agindurako eskaerak eta baita beroni buruzko beste informazio garrantzitsu batzuk ere. Horretarako, komenigarria litzateke:

- ?? Babes Agindurako eskaera-orriak eskuragarri egotea organo penal eta zibiletan, Fiskaltzetan, Biktimentaren Arretarako Bulegoetan, Hiritarraren Arretarako Bulegoetan, Abokatuen Elkargoen Orientabide Juridikoen Zerbitzuetan, polizia egoitzetan, eta baita Administrazio Publikoen menpeko gizarte zerbitzu edo laguntza erakundeetan.
- ?? Nolanahi ere, aipaturiko eskaera-orriok Internet bidez ere eskuragarri izan beharko dira, bai BJKO-ko webgunean zein partaide diren gainontzeko erakunde eta organizazioen webguneetan.
- ?? Bere kasuan, Komunitate Autonomo bakoitzeko hizkuntza koofizialean ere argitaratuko da eskaera-orria.

### **1.3.- ESKAERA AURKEZTEKO LEKUA**

Legeak berak adierazten duen moduan, Babes Agindua zuzenean eskatu ahal izango da Agintaritza Judizialean edo Ministerio Fiskalean, edota Segurtasun Indar eta Gorputzetan, Biktimarentzako Arreta Bulegoetan, Administrazio publikoen menpeko gizarte zerbitzu edo laguntza erakundeetan zein Abokatu Elkargoen Orientabide Juridikoen Zerbitzuetan. Behin eskaera jaso ostean, luzamendu gabe igorri beharko da eskaera Guardia Epaitegira; Guardia Epaitegiak Babes Agindua hartzeko beharrezkoak diren eginbideak burutzea eska diezaioke Polizia Judizialari.

Legeak onartzen dituen hainbat aukeren artean, esperientziak erakusten du kasu gehienetan biktimek salaketa polizia egoitzetan edo guardia Epaitegian bertan aurkezten dutela.

Praktika ona litzateke biktimari profesional batek laguntza ematea agindu eskaera betetzen duen unean, eta, are gehiago, Poliziaren aurrean aurkeztera ere laguntzea.

### **1.4.- GUARDIA EPAITEGIAREN ESKU-HARTZEA**

Guardia Epaitegiak Babes Agindu eskaera bat jasotzen duenean ondoko egoerak sor daitezke:

1. Gertakariak falta osatzen dutenean, PKLE 964.2 artikulua faltagatikoko epaiketak berehalakotasunez burutzea onartzen du. Eta aipaturiko osokoa Babes Aginduaren audientzia ere burutu ahal izango da.
2. Gertakariak delitua osatzen dutenean, aurkezturiko Babes Agindu eskaeraren inguruan erabakitzeke audientzia deituko du Epaileak, biktimaren, inputatuaren eta deituak izan behar diren gainontzeko pertsonen presentzia bermatzeko beharrezkoak diren zitazioak aginduz. Audientzia hau PKLE 504 bis 2 artikuluan aurreikusitakorekin batera, aldi berean, burutu daiteke bere deialdia bidezkoa denean edo PKLE 798. artikuluan arauturiko audientziarekin "epaiketa azkar" prozedura bidez tramitatzen diren kausetan.

### **1.5.- POLIZIA JUDIZIALAREN ESKU-HARTZEA**

Zentzu honetan, eta kontuan izanik kasu asko eta askotan Babes Agindua Polizia Judizialaren aurrean eskatuko dela, Polizia Judizialak dagokion atestaturia egingo du gertakariak egiaztatzeko, bere kasuan Epailearen erabakia oinarrituko den beharrezko ikerketa praktiken aurrerapena zehaztuz. Modu honetara, tramitazioa arintzea bermatuko da, eta era berean Guardia Epaileak elementu gehiago izango ditu eskura Babes Agindua oinarritzeko.

Bestalde, tresna hau 38/2002 Legeak aurreikusitako “epaiketa azkarren” tramitazioarekin bateratzen da; “epaiketa azkar” horiek atestatu bidez ireki behar dira nahitaez (Prozedura Kriminaleko Legeko 795 ex artikuluko argudioa).

Hortaz, gomendagarria da Epaitegira heltzen den Babes Agindu eskaera Polizia Judizialak buruturiko dagokion atestatuarekin batera heltzea.

### **1.6.- ATESTATUA GUARDIA EPAITEGIRA IGORTZEA**

Eskaera Polizia Judizialaren aurrean aurkezten den balizko kasuetarako edo Polizia Judizialaren bitartez Instrukzio Epaitegiari honen berri ematen zaion balizko kasuetarako, komenigarria litzateke Babes Aginduaren eskaera Polizia Judizialek Guardia Epaitegira azkar eta arin komunikatzea ahalbidetzen duen sistema bat ezartzea. Sistema modu telematikoan era liteke, baldintzek eragozten duten kasuetan izan ezik.

## **2.- BABES AGINDUA HARTZEKO FASEA**

### **2.1.- PROZEDURA PENALA IREKITZEA**

Babes Agindurako eskaera oro, nahitaez, prozedura penal zehatz bati lotuta egon behar da, eta soilik bakar bati.

Prozedura egoerari kasu eginez, ondoko egoeraren bat sor daiteke:

?? Babes Aginduaren eskaeraren oinarri diren gertakarien inguruko prozedura penal irekirik ez badago, Epaileak erabakiko du delitu edo faltagatik dagokion prozedura penala ireki edo ez ireki.

?? Babes Aginduaren eskaeraren oinarri diren gertakarien inguruko prozedura penal ireki bat baldin badago, kausa ezagutzen duen Epaile edo Auzitegiak erabaki ahalko du biktimarentzako babes aginduaren inguruan, PKLE 544 hiru. artikulua 11. atalak ezartzen duen eran, bereziki biktimarentzako arriskua areagotzen den balizko kasuetan.

?? Nolanahi ere, Guardia dagoen Instrukzio Epaitegiak esku hartu ahal izango du berehalako jardura justifikatzen duen larritasunezko arrazoiren bat dagoen kasuetan, eta ondoren, izandako jardura eskumena duen Epaile edo Auzitegira igorri beharko da banaketa arauak betez (BJKO Araudia 5/1995 40. artikulua).

## **2.2.- HAINBAT BABES AGINDU ALDI BEREAN APLIKATZEKO EZINTASUNA**

Ageriko antolakuntza eta koordinazio arrazoiak direla eta, biktima bakoitzari eragiten dion Babes Agindu bakarra egon daiteke. Modu honetara, ezin daitezke pertsona beraren gain eragiten duten hainbat babes agindualdi berean aplikatu.

Babes Aginduaren edukia moldatu egin dezake, bidezkoa baldin bada, kasua ezagutzeko eskumena duen organo judizialak baldintzak aldatzen direnean (*rebus sic stantibus*) (pentsa dezagun, batez ere, biktimaren arrisku egoera areagotzen den balizko kasu horietan), baina ezingo da jada agindutakoaren terminoak kontraesaten dituen ondorengo Babes Agindu bat onartu.

Larrialdi kasuetan, guardia lanetan dagoen Instrukzio Epaileak ere aldatu ahal izango du Babes Agindua, beharrezkotzat jotzen badu; eta ondoren, eskumena duen organo judizialera igorri beharko ditu aldaketok.

### **3.- BABES AGINDUAREN JAKINARAZPENA ETA EXEKUZIOA**

#### **3.1.- NEURRI PENALAK ETA BABES NEURRIAK**

Guardia Epailleak bidezkozat jotzen duen guztietan, gertakarien larritasunaren arabera eta biktimaren babes integralerako beharraren arabera, legalki aurreikusitako kautela-neurriren bat hartu ahal izango du (behin-behineko presoaldia, hurbiltze debekua, bizileku debekua, komunikazio debekua, armak konfiskatzea, edo beste edozein). Arestian aipaturikoa burutzeko, garrantzitsua litzateke ematen den autoaren atal dispositiboak harturiko neurri bakoitzaren irismen eta edukiei buruzko deskribapen zehatz-mehatza jasotzea.

Beharrezkoa da neurria hartzea erabaki zuen Instrukzio Epaitegiaren eta Polizia Judizialaren artean Babes Aginduaren berri emateko komunikazio sistema azkar eta arina ezartzea. Sistema modu telematikoan eratu ahal izango da, baldintzek eragozten duten kasuetan izan ezik.

Bestalde, bereziki garrantzitsua da Segurtasun Indar eta Gorputz ezberdinen arteko koordinazioa (Polizia Nazionala, Guardia Zibila, Komunitate Autonomoetako Poliziak, Udaltzaingoa). Horretarako, eta beste tresna batzuen artean, erabilgarriak izan daitezke Polizia Judizialaren Koordinazio Batzorde Nazionalaren lanak, zein Komunitate Autonomoen, probintzien edota barruti judizialen esparruko Lankidetza Protokoloak (BJKO Araudia 5/95 47.4 artikulua eta BJKO Instrukzioa 2/2003 8. artikulua).

Babes Aginduaren aplikazioaren kontrol eta segimendurako egokiak diren mekanismoak ere ezarriko dira, bereziki Segurtasun Indar eta Gorputzen esku-hartzea garrantzitsua den biktimaren segurtasun alorrean. Neurrietako batzuk ez betetzeak erruztatua kartzelaratzeko ekar dezake, Kode Penaleko 468. artikuluko kautela-neurria hausteagatiko delitua osatuko lukeelako.

### **3.2.- NEURRI ZIBILAK**

Babes Aginduaren araudi berriak biktimaren babeserako ekarri duen zalantzarik gabeko berrikuntza ondokoa da: guardia Epaileak izaera zibileko behin-behineko neurriak hartzeko duen aukera.

Jurisdikzio honen inspirazio printzipioen arabera, neurriok biktimak edo bere ordezkari legalak eskatu behar ditu, edota Ministerio Fiskalak seme-alaba adingabeko edo ezgaituak dauden kasuetan. Behin neurrien eskaera egin ostean, PKLE 544 hiru. artikuluan aurreikusitako audientzian eztabaidatuko dira, eta ostean guardia lanetan dagoen Instrukzio Epaileak ebatsiko du, bidezkoa bada, dagokion autoa.

Neurriok ondokoak izan daitezke: bizileku familiarraren erabilera eta gozamenerako eskuduntza, zaintza erregimenaren ebaspena, bisitak, komunikazioa eta egonaldiak seme-alabekin, janari prestazioaren erregimena eta adingabea arriskutik aldendu eta kalteak saihesteko egoki iruditzen de edozein disposizio.

Bestalde, behin-behineko izaeradun neurriak dira hauek, hau da, denboran zehar indarrean egoteko epe mugatua dute, eta beraz gerora berretsi, moldatu edo indargabe utzi behar ditu Epaile zibilak. Gogora dezagun PKLE 544 hiru. 7. ataleko bigarren paragrafoak Babes Neurriaren baitako neurri guztientzat indarrean egoteko ezartzen duen denbora tartea: hogeita hamar egun. Eta gaineratzen du, epe honen barruan biktimaren edo bere ordezkari legalaren eskaeraz familia prozedura bat irekiko balitz jurisdikzio zibilaren aurrean, hartutako neurriek indarrean jarraituko dutela demanda aurkeztu osteko hogeita hamar egunetan zehar. Eta hortaz, eskumena duen Lehenengo Instantziako Epaileak berretsi, moldatu edo indargabetu beharko ditu neurriok.

### **3.3.- JURISDIKZIO PENAL ETA ZIBILEN ARTEKO KOORDINAZIOA**

Lege berriak guardia lanetan dagoen Instrukzio Epaileari izaera zibileko kautela-neurriak hartzeko baimena ematen dionez, garrantzitsu bihurtzen da jurisdikzio penal eta zibilen arteko koordinazioa.

Koordinaziorako lehen arauetako bat PKLE 544 hiru. 7. artikuluko atal berrian aurreikusten da, beharrezkotzat joz guardia Epaileak izaera honetako neurri bat hartu ahal izateko neurri hori aurretik hitzartua ez izatea jurisdikzio zibileko organoren batek, Kode Zibileko 158. artikuluan aurreikusitako neurriei kalterik egin barik.

Bigarrenez, aipagarria da Guardia Epaileak harturiko neurri zibilen iraupen mugatuan txertatutako koordinazio xedea. Horretarako, PKLE 544 hiru. 7. ataleko bigarren paragrafoak Babes Neurriaren baitako neurri guztientzat indarrean egoteko ezartzen duen denbora tartea: hogeita hamar egun.

Arestian aipaturiko bi Jurisdikzioen arteko koordinazioa gauzatzeko erabilgarri izan daitezke Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrak eta Epaitegi eta Auzitegien Gobernuen beste organo batzuek onartutako dagokien tresna arauemaileak, aipaturiko koordinazioa errazteko Ministerio Fiskalak duen garrantzizko eginkizuna ahaztu barik.

PKLE 544 hiru. artikuluko 7. ataleko 2. paragrafoan ezarritakoen arabera, Lehenengo Instantziako Epaileak 30 egunen barruan berretsi, moldatu edo indargabetu beharko ditu Babes Aginduaren baitako izaera zibileko neurriak, eta denbora tarte luzaezina denez berau ez betetzeak Instrukzio Epaileak adostutako neurriak iraungitzea ekarriko luke ondorio larri gisa.

### **3.4.- LAGUNTZA ETA GIZARTE-BABESERAKO NEURRIAK**

Legeak ezartzen duenaren arabera, Guardia Epaileak adostutako Babes Aginduak Administrazio Publikoek (estatalek, autonomikoek eta udaletakoek) aurreikusitako gizarte-babes eta gizarte-laguntzak aktibatzen ditu.

Babes Agindua arautzen duen legeak bide bakarra ezartzen du biktimak behar dituen babes eta gizarte-laguntza neurriak eskatzeko. Beharrezkoa da, hortaz, tartean dauden administrazio guztiak koordinatzea biktimari eskatzen duen unetik laguntza egokia eskaintzeko.

PKLE 544 hiru. artikulua 8. atalean ezarritakoaren arabera, araudi orokor baten bidez (Komunitate Autonomo bakoitzak garatu ahal izango du) koordinazio administratiboko sistema integratu bat ezarriko da, komunikazio hauen arintasuna bermatzeko helburuarekin ondoko ildoen inguruan gauzatuko dena:

1. Koordinazio Puntu bat ezarriko da. Epaileak Babes Agindua igorri beharko du bertara, eta biktimak eskaturiko zein beharrezkoak diren laguntzak (ordenamendu juridikoan aurreikusitakoak) ahalbidetuko ditu Koordinazio Puntu horrek.
2. Halaber, komunikazio sistema bat ere ezarriko da, ahal izanez gero telematikoa, Guardia Epaitegitik dagokion Koordinazio Zentrora Babes Aginduaren igorpen azkarra ahalbidetzen duena.
3. Koordinazio puntuak biktimaren beharrezkoetara egokitutako laguntza eta babes egokiak izendatuko ditu, biktimak eskaturiko laguntzak denbora errealean eskuratzea erraztuz.

Behin-behineko izaerarekin, behin betiko koordinazio administratiboko sistema integratua ezarri bitartean, Instrukzio Epaileak dagokion Komunitate Autonomoan gizarte-laguntza alorrean eskumena duen organoari emango dio Babes Aginduaren berri.

Epaileak emandako Babes Aginduak babes integralerako estatutua ematen dio biktimari. Babes estatutu honek titulu gaitu bat barne hartzen du ordenamendu juridikoan ezarritako gizarte-laguntzak eskura izateko eta, bereziki, uztailaren 18ko 945/2003 ED-ko 2.2 d) artikuluan araututako gizarteratze Errenta aktiboa, doako eta espezializatutako laguntza juridikoa, eta legeek aurreikusten duten beste edozein laguntza edo babes neurri eskura izateko.

Eskaintako laguntzen iraupena, edukia, irismena eta indarrean egoteko tartea Administrazio bakoitzak ezarritako irizpideen arabera zehaztuko dira, beti ere, biktimaren eta bere inguru familiarraren baldintzen beharrezkoen arabera.



### **3.4.- BIKTIMAREN ARRETARAKO BULEGOAK**

Biktimaren Arretarako Bulegoek betekizun garrantzitsua dute biktimari inputatuaren auzibideko egoerari buruz une oro informazioa ematerako orduan, eta baita harturiko kautela-neurrien irismen eta indarrean egoteko tarteari buruzko informazioa ematerako orduan ere. Arestian aipaturikoa burutzeko, Babes Agindua adosten duen Epaileak dagokion Biktimaren Arretarako Bulegoari horren berri eman beharko dio eta baita inputatuari dagozkion auzibide egoeren berri ere (baita zigorraren exekuzio fasean ere).

Biktimaren Arretarako Bulegoen aktibitatea modu pro-aktiboan garatuko da, hau da, biktimarekin harremanetan jartzeko inizatiba hartuaz eta bere balizko beharrezan aurre hartuaz. Kontuan izan behar da indarkeriaren kontra emakumeak babesteari buruzko Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen (2002)5 Estatu kideentzako Gomendioak ondoko neurria gomendatzen duela beste hainbaten artean: "biktimen babeserako zerbitzu pro-aktiboak martxan jartzea bultzatzea, biktimekin harremanetan jartzeko inizatiba hartzen dutenak kasua polizia zerbitzuetara igortzen den unetik aurrera".

Halaber, Biktimen Arretarako Bulegoen egitekoak Babes Aginduaren araudi eta ezarpenera moldatuko dira, biktimen laguntza hobetzeko helburuarekin. Horretarako, aipaturiko Bulegoetan euren zerbitzua eskaintzen dutenei zuzenduriko trebakuntza modulu espezifikoak bultzatuko dira.

### **3.5.- ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO ERREGISTRO ZENTRALA**

Prozedura Kriminaleko 544 hiru. artikulua erredakzio berriak ezartzen duenaren arabera, Erregistro Zentral bat ezarri behar da Etxeko Indarkeriaren Biktimen Babeserako, Babes Aginduaren eraginkortasuna bultzatuko duen Erregistro Zentrala.

Erregistro Zentral hau jada badauden erregistroekin egokiro koordinatu

beharko da, bai Fiskaltzetako Familia Indarkeriarako Zerbitzuetakoekin eta bai BJKO-ren 3/2003 Instrukzioak sortutako Etxeko Indarkeriarako Erregistroekin, informazioaren banaketa eraginkorra bultzatuz.

### **3.6.- ZIGOR-ADMINISTRAZIOA**

Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikulua 9. atalaren arabera, babes agindua ebasten duen organo judizialak beronen berri eman beharko dio Zigor-Administrazioari.

## **4.- LAGUNTZA JURIDIKOA ETA AUZIBIDEKO ORDEZKARITZA**

Abokatuaren laguntza garrantzitsua bihurtzen da zaintza judizial eraginkorrerako eta defentsa eskubidea egokiro gauzatzeko, bereziki Guardia lanetan dagoen Instrukzio Epaileak izaera zibileko neurriak (bizilekuaren erabilera eta gozameneko eskuduntzari dagozkionak, seme-alabekin izan beharreko harremani dagozkionak eta janari prestazioari dagozkionak) har ditzakeela kontuan izanez gero.

Komenigarria da aipaturiko eskubideen erabilpena erraztea, araudiaren eta aplikagarri diren hitzarmenen arabera. Halaber, azpimarragarria da laguntza juridikoa eskaintzen duten eta dagokien auzibideko defentsa burutzen duten profesionalek trebakuntza espezializatua izateko duten beharra.

## **5.- BABES AGINDUAREN ZABALKUNDEA**

Biktinek euren Babes Aginduaren existentziaren berri izatea, eta baita euron ezaugarrien eta funtzionamenduaren berri izatea ere, beronen ezarpen egokirako elementu gakoetako bat da. Horretarako:

?? Etxeko Indarkeriaren Biktimentzako Babes Aginduaren  
Ezarpenerako Segimendu Batzordeak triptikoak, kartelak edota

Babes Aginduari buruzko bestelako informazio materialak garatuko ditu. Informazio materialok zabaldu egin beharko dira organo penal eta zibilen, Fiskaltzen, Biktimaren Arretarako Bulegoen, Hiritarraren Arretarako Bulegoen, Abokatuen Elkargoen Orientabide Juridikoen Zerbitzuen, polizia egoitzen, eta Administrazio Publikoen menpeko gizarte zerbitzu edo laguntza erakundeen bitartez.

?? Osagarri gisa, erakunde edo Administrazio bakoitzak egoki iruditzen zaizkion zabalkunde ekintzak burutuko ditu.

## **6.- TREBAKUNTZA**

Indarkeriaren kontrako emakumeen babesaren inguruko Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen (2002)5 Gomendioak (2002ko apirilaren 30ean onartuak) adierazten duen bezala, « beharrezkoa da emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiten dioten profesionalek trebakuntza espezializatua izatea », eta beraz, bereziki garrantzitsu bilakatzen dira erakunde eta administrazio ezberdinek garaturiko Trebakuntza Planak.

Diziplina anitzeko ikuspegi batek, tartean dauden profesional ezberdinek trebakuntza ekintza berean parte hartzetik abiatuz, trebakuntzaren kalitatea hobetzen laguntzen du laguntzaile guztiak arazoaren perspektiba ezberdinetara hurbiltzen direlako.